

«BESTE URTE BATEN BUKAERA»

I

Urtea ia amaitu zaigu
gainean Eguberriak
oraindik ere Euskal Herrian
lehengo antzeko berriak
gure bihotzak penaz leherturik
eta malkotan begiak
ez ote dugu aldatu behar
entzule maitagarriak.

II

Gure Euskal Herri honetan ez da
inoiz falta akatzikan
urtea joan ta urtea etorri
ezin kendu arantzikan
aurtengo honek ere ez digu
alaituko bihotzikan
berriro ere gure Olentzero
bait dator esku hutsikan.

III

Beste urtetan hor gelditzen da
askoren gisa atzean
lehengo nahigabe berak utzita
euskaldunan bihotzean
anai batzuak atzerrian ta
beste batzuk espetxean
Gabon alairik ez da izaten
norbait falta den etxean.

IV

Amets batean bizi ditugu
arratsak eta egunak
eta honela jarrai beharra
hemen bihotzik dugunak
Beren etxera ekarri arte
falta zaizkigun lagunak,
bizi pozikan ezin aurkitu
benetako euskaldunak.

V

Euskal Herriak eskatzen duna
da negoziatutzia
gogorra baita hainbat urtetan
borrokan jarraitutzia
ta gogorrago hainbat euskaldun
expetxetan usteltzia
hori al dugu Euskal Herrian
daukagun demokrazia.

VI

Behin betirako bukatu dut nik
Euskal Herriko negarra
batu ditzagun Bizkai, Gipuzko,
Araba eta Nafarroa.
Bai eta ere ahal baldin bada
Hegoa eta Iparra,
hori lortutzen baldin badugu,
badugu nahiko indarra.

VII

Entzun Ardantza, entzun Arzalluz
ta beste agintariak,
irtenbide bat premizkoa du
gu bizi geran herriak
Denbora hontan damutu gabe
hartu ahal bada neurriak,
milagroren bat egingo al du
datorren Urteberriak?

— MARTZELINO LEGORBURU —
«Argiñane»